

«Zuberoatik kanpo egitekotan, pastoralak ezin da kopia hutsa izan»

Gaur arratsaldean eta maiatzaren 12ko eguerdian, Iruñeko San Frantzisko eskolan, Zaldiko Maldiko kultur elkartearen eskutik emanen den “Julia Fernandez Zabaleta, emakume aitzindariak” pastoralaren errejenta eta idazlea dira, hurrenez hurren, Ihitz Iriart (Aloze, 1987) eta Mikel Taberna (Alkaiaga, 1957). Biak ala biak Iruñetik kanpo sortu baina Iruñean errotuak, pastoralak oholzaraino egin duen bidearen gibelean dagoenaz mintzatu zaizkigu. Agortuta daude sarrerak. Ez, ordea, urratzen ari diren bidea.

Orain bederatzi urte antolatuz Joxemiel Bidador pastoralak Iruñean. Orduan ere errejenta zinen Ihitz. Zuk, Mikel, ikusle bezala bizi izan zenuen. Zer utzi zuen pastoral hark?

Ihitz Iriarte (I.I): Iruñeko jendearen baitan, imajinario baten oroitzapen gozoa utzi zuela uste dut. Iruditzen zait jendeak ongi pasa zuela, harrituta zela, pastoral bat Iruñean lekutzeak efektu bat eragin zuela. Publikoari gelditu zitzaion oroitzapen gozo hori oinarri ona da bigarren pastoral hau emateko. Hasierako ezezagutza lausoturik, argiagoa da jendearen buruan dagoena. Aktoreentzat, halaber, esperientzia ederra izan zen, lanordu asko eskatu zituen, baina merezi izan zuen lanmolde bat. Azkenik, beti gelditzen dira testua eta pertsonaia bera. Joxemiel Bidador ezagutzeko parada izan zen batzuentzat, bere izatean sakon-

tzekoa besteentzat eta, aldi berean, baita omenaldi moduko bat ere.

Mikel Taberna (M.T): Harritu ninduen, ederra izan zen. Hala ere, Bidador pastoralak baino lehentxeago, Ederlezi pastoralak eman zen Iruñean, eta erranen nuke biek ala biek utzi zutela hondar bat Iruñeko euskaldungoarengan, hondar bat eta harreman batzuk. Segur aski, hortik dator Julia Fernandez Zabaletaren pastoralaren hazia.

Baina noiz hasten da gorpuzten?

M.T: Kike Diez de Ulzurrunek eta Ihitzek bilera batera noiz deitu ninduten dakit nik.

I.I: Bai, duela bi urte kasik. Zaldiko Maldiko elkartearen baitan, kantu-tailer bat dugu, 30 bat pertsonaz osatua. Bidador pastoralaren ondorengatik jarri genuen martxan, errepertorioa handitzeko eta korutik aldentzen den baina kantatzeko ohiturari edo plazerari lotzen zaion kantaera proposatzeko helburuarekin. 5-6 urtez hola ibili ondoren, ez atzera ez aurrera geunden: jende aitziñean emateko ikusgarri bat egiten genuen, edo ez genuen gure kantua ulertzeko mane- ran aktiboki aritzeko plaza publikorik. Hala, pastoralak taldearentzat ariketa polita izan zitekeela iruditu zitzaigun. Hori bai, egitekotan, argi genuen osoki gure pastoralak eraiki behar genuela eta, ondorioz, guk idatzi behar genuela. Kike Diez de Ulzurrunek lehendik zerabilen Julia Fernandez Zabaleta buruan, berari buruzko ikerketa bat egin zuten, berari buruzko beste lan batzuen berri zeukan... Horrela jo genuen kan-

tu-tailerreko kide ere baden Mikelengana.

M.T: Julia ez zela merezi bezain ezaguna iruditzen zitzaion Kikeri. Iruñeak eta Euskal Herriak ezagutu beharko luketen emakume bat zela. Eta gauzak zer diren, ni gerora ohartu banintzen ere, Bidador pastoralan ere agertzen da Julia.

Nor da Julia Fernandez Zabaleta?

M.T: 1898an, Iruñeko Dormitalleria karrikan jaio zen. Irakasle ikasketak egin zituen, ikasle bikaina zen eta, 18 urterekin, udalaren beka bat lagun, Maria Montessori pedagogoa ezagutzera, Bartzelonara joateko proposamena luzatu zioten. Julia, ordea, ez zen joan-etorri hutsarekin konformatu eta, itzultzean, Montessoriren ideiak eta bere ekarpen propioak biltzen zituen txostena argitaratu zuten Iruñeko Udalaren bidez. Gerora, irakasle-lanetan hasi zen, udal langilea zen Iruñeko San Frantzisko eskolan. Hantxan zen kolpe frankista bitartean. Alabaina, hori baino askoz lehenagotik euskaldundu zen, baita euskaltzale eta abertzale aktibista bihurtu ere. Pentsa, euskara ikasten hasi eta urtebetera euskarazko hitzaldi bat eman zuten Donezteben, jendea euskaraz aritzera animatzeko eta euskara oso balioetsua zela adierazteko. Handik gutxira, Donostian, euskarazko beste hitzaldi batean hartu zuten parte, feminismoaren baloreak defendatuz eta gortuz. Feminismo hitza edo sufragistak aipatzen zituen bertan. Horrek adierazten du emakume hori ez zela nor-nahi. Jakin-mina zuen, irakur-

IHITZ IRIART ETA MIKEL TABERNA

JULIA FERNANDEZ ZABALETA PASTORALAREN ERREJENTA ETA IDAZLEA

«Julia Fernandez Zabaleta, emakume aitzindariak» pastoralak bi aldiz emango dute Iruñean. Proiektua nola garatu den azaldu digute Iriartek eta Tabernak.

tzen zuen, ideiak bereganatzen zituen eta plazaratzen edo zabaltzen saiatzen zen.

Pastoralak badu memoria osatzeko funtzio bat?

I.I: Jakina. Pastorala ez da historia liburu bat bezala kontsideratzen, ez du hala izan behar, baina bada historiara hurbiltzeko beste modu bat. Gehigarri bat da, bai informazioa biltzeko momentuan bai informazio hori publikoari helarazteko orduan. Agian, jende batek sujetaren izena baizik ez du gogoan atxikiko, baina beste askori sakontzeko jakin-mina piztuko zaie. Uste dut garrantzitsua dela tokiko erreferentziak eta erreferentiek berreskuratzea.

M.T: Iruditzen zait Iruñeko euskaldunentzat ere aski arrotza eta ezezaguna dela gerra aurreko Iruña. Oso gutxitan aipatzen da gerra aitzinean hirian zegoen euskal eta kultur mugimendua. Joxe Miel Bidador bera zen “aizue, hauek denak hemen ari ziren eta ez ditugu ezagutzen!” aldarrikatzen zuenetako bat. Pastoral honekin anitz ikasi dugu, baina zer aztertu asko dago oraindik.

I.I: Dena gordea edo isilarazia izan den garai bati emandako erantzuna ere izan daiteke pastoralak. Gezurra da hemen aipatzen ditugun arloetan ez zela euskal emakumerik ibili. Historiaren ukazioaren gezur handia informazio txikiekin deuseztatzeak manera da pastoralak.

Aldi berean, Maria Montessoriren pedagogia, euskaltzale-tasuna ala feminismoa bezalako gaiak oso aktualak dira oraindik.

I.I: Hala suertatu da. Kezkagarria bezain interesgarria da.



Argazkiak: Iñigo URIZ

Dena den, hiru arlo horietan konparazio asko bilatu baditugu ere, nabaria da Julia Fernandez garai hartako emakumea dela eta, egun, arazo berdintsuak bestelako betaurrekoekin analizatzen ditugula. Hori hala, aberasgarria da ohartzea, kasik mende bat berantago, antzeko problemekin segitzen dugula, askotan ez dugula arraposturik topatzen, baina ez garela orduan funtzionatu zuenarengan bermatzen errezeta zaharkitutzat dugulako.

Azken urteotan gero eta pastoral gehiago dira Zuberoatik kanpo egiten direnak. Zeren sintoma da?

M.T: Ez naiz zuberotarra eta zuberotarrek senti dezaketen jabetza sentimendua erabat errespetatzen dut. Urrunetik, Nafarroatik, begiratzen diot fenomenoari. Ohartu naiz azken urteetan pastoralak ugaltu direla eta moldearen aldaerak ere ari direla agertzen. Horren adibide dira lehen aipatu dugun Ederlezi edo nano pastoralak. Niri ederra bezain aberatsa iruditzen zait pastoralgintza. Antzerki molde bat erabiltzen dugu funtzionatu dezakeela badakigulako. Pastoral honekin zerbait emanen dugu jende aitzinean, horretarako lan bat egin dugu, jendeak ikusiko du, zerbait eramanen du bere baitan, baina arizaleok edo ari garenok eskaintzen dugunaren ordainez jasotzen duguna izugarria da. Pastoralak kolektiboak da, komunitate txiki bat sortu dugu Iruñeko euskal komunitate zabaloaren barnean, gure artean elkarlan bat egon da, harremanak ehundu ditugu, elkarrekin bizitza zatiak konpartitu ditugu, elkarrengandik ikasi...Oso pizgarria eta balio-

tsua da, oso bizia, oso gomen-dagarria osasunerako.

I.I: Pastoral ulertzeko mane-ra ezberdinak daude. Pastoral aski zabala edo abstraktua da, jende askorentzat erreferen-tzia izateko koadro bat badu eta, koadro horretan ixten ez bazara, aukera asko irekitzen zaizkizu. Gainera, jendea el-kartzeko oso modu ederra da. Mundua oso azkar doa, baina gure oinarritzko beharrek ber-dinak izaten segitzen dute eta pertsonok elkarrekin lan egi-teko, sortzeko, helburu bat partekatzeko, adrenalina bizi-tzeko edo zerbaiten parte sen-titzeko beharra dugu. Gero, beharbada, harrigarria egiten zaigu hori Zuberoatik atera-tzea. Beste gai bat bada hor. Zuberoak Zuberoarentzat fun-tzionatzen duen zerbait dau-ka esku artean, eta egon daite-ke kanpora joaten uzteko beldur bat, etxean atxiki ezean funtzionatzeari utziko dion beldurra. Beraz, uste dut garrantzitsua dela ohartzea Zuberoa hori baino gehiago dela, erreferente izan daite-keela Euskal Herriko beste probintzientzat eta euskal he-rritarrok hobe dugula Zube-roako kulturatik edanik, kan-potik datorren eta herri gisa hainbeste egokitzen ez zaigun zernahi edatea baino.

Azken urteetan, Zuberoatik kanpo eman diren pastoral gehienak feminizatuak dira. Kasualitatea da?

I.I: Geruza anitz gainjartzen direla uste dut: informazioa ematea, erreferenteak sortzea, izan ez garela dioen gezurra deuseztatzea... Hala, sujetak bakarrik ez, errejentak eta idazleak ere emakumezkoak izan dira usu. Pastoral eredu-a ere eraldatu dela esanen nuke. Ez dakit guk dugun pastoral

eredua aldatu ala Zuberoatik at emateak duen pastoralak ikusteko manera aldatzen. Ez dakit guk ere ez ote dugun beste libertate bat aurkitzen kanpoan. Ez da bortxaz Zube-roan norbaiti leporatuko nio-keen askatasun falta bat, baina bitxia da: inork ez daki nor da-goien pastoral bat egiteko prest, nork dakien eta, ondo-

«Historiaren ukazioaren gezur handia informazio txikiekin deuseztatzeko manera da pastoralak» (Ihitz Iriart)

rioz, betikoengana itzularaz-ten gaituen indar bat sortzen da. Ez da kasualitatea emaku-me askok Zuberoatik kanpora egin izana pastoralak. Ez da kasualitatea Zuberoan emaz-teek idatzi dituzten pastoral gehienak ez izatea udako pas-toral ofizialak. Hori esanik, as-koz interesgarriagoa iruditzen zait gizon, emazte edo garai



bati buruz ari garenean ze ikuspegi hartzen dugun pasto-rala garatzeko. Zentzu horre-tan, oso baliotsua da Mikele-kin lan egitea. Badakit kontsideratzen nauela, pare-kotzat naukala eta, beraz, zer-nahi proposamen luzatu ahal izan diot.

Adibidez?

I.I: Oso gauza sinpleak dira. Emakume bat eta gizon bat mintzo badira zertaz ari dira, gizonaren egoeraz ala emaz-tearenaz? Emazteak beraien artean solastatzen direnean, gizonari buruz ala emazteei bu-ruz mintzo dira? Emakumeak elkarrekin ari direnean, isto-rioa aitzinarazten dute ala be-girale soilak dira? Aldi berean, interesgarria iruditzen zait ge-neroarekin jolastea. Adibidez, badakigu Julia Fernandezek gelatik ikuskari bat pasa zela. Inspektore hori emakumez-koa ote zen? Segur aski ez, bai-na istorioaren egiazkotasunari zertan eragiten dio ikuskari hori emazte bat izateak? Gaur egun, bere heziketa egiten ari den batentzat, ez ote da ga-rrantzitsuagoa ikuskari hori emazte bihurtzea? Edo, alde-rantziz, ikuskariak bortxaz gi-zonezkoak zirela azpimarratu nahi badugu, zergatik ez du antzeztuko emazte batek mustatxa batekin? Jolas anda-na landu ahal izan ditut, pas-toral txikia delako gurea, idaz-lea hurbilekoa dudalako, errespetuan lan egin dugula-ko... Zuberoatik kanpo egite-kotan, pastoralak ezin da kopia hutsa izan.

Kopia izan ala ez, sormen artistikoa eta herrigintza gurutzatzen dira pastorekin. Nola kudeatzen da hori?

M.T: Nik kolektiboki egin nahi izan dut bidea, Idazketan ere

nire izena ageri da, baina, hein batean, kolektiboa izan da prozesua. Nik beti taldearen zerbitzura ikusi dut nire burua. Hala behar zuela uste dut. Oso ederra da zerbait idatzi eta errejentak hori nola biziarazten duen ikustea. Ihitzek ardura berezia izan du hor. Berak zekien, arlo guztietan, zehazki pastoralak zer zen: testuan, mugimenduetan, harremanetan... Askotan, ulertzen ez genituen egoeretan, isilarazi gaitu, bideratu, konbentzitu eta ikusten ez genituenak ikusten lagundu.

I.I: Kanpotik ikusten dena emaitza da. Horregatik, ariketa plazan ematea deliberatzen den momentutik dira hasten arazoak edo gatazkak. Hor du pastoralak bere aurpegia erakusten, hor da etengabeko negozio bat hasten. Normaltasun osoz mintzo gara kolektiboki lan egiteaz, baina hori ere hautu bat da eta komunitatean lan egitea ez da alferrentzako eginga. Ez da beti kudeatzen erraza, baina beti dago bakoitzarentzat egokia izan daitekeen lan bat, denek daukate haien tokia eta, segur aski, horregatik du funtzionatzen. Hor ezagutzen dugu elkar, hor dira harremanak sortzen eta desegiten, desilusioak gertatzen dira, laguntasun sakonagoak sortzen... Ez da deus hori baino benetakoagorik.

Azken urteotan Iruñean, bai pastoralarekin bai Iruinkoakoarekin, ez al dago tradizioa berrinterpretatu eta Iruñera egokitzeko desio eta lan bat?

I.I: Guztiz. Hori da egiten duzunaz kontziente izatea. Dantza edo musika talde batek ere izan dezake kontzientzia hori. Hori du Euskal Herriak. Julia Fernandezek ere argi dio bere diskurtsoan: “Utz diezaiogun tximinoarena egiteari eta Ma-

«Gisa honetako antzerki edo pastoral bat beste nonbait egiteko grina piztuko dugu, beharbada. Baliteke norbaiti tresna egokia iruditzea esperientzia kolektibo bat sustatzeko» (Mikel Taberna)

drilgo edo Parisko señoritoak imitatzeari!”. Baditugu tresnak, ezagutu behar ditugu, beldurra galdu, beraiekin kontaktuan egon jakintza bat jasotzeko eta bakoitzaren garai eta errealitatera egokitzeko. Tokian tokiko sekulako materiala dugu baliatua izateko desiratzen. Pertsona bat politizatu edo aktibista izateko metodo anitz ezagutzen ditut, eta horietako bat pastoralak da. Tamalgarria zait horretan ez sinestea.

Zer utziko du Julia Fernandez Zabaleta pastoralak?

M.T: Gure baitan mugituko du zerbait, esperientzia aberatsa bezain ederra izaten ari delako. Kanpora begira ere historiaren garai ilun eta aski ezezagun bat deskubritzeko gogoia edo jakin-mina ere utziko diuelakoan nago. Bestalde, gisa honetako antzerki edo pastoral bat beste nonbait egiteko grina piztuko dugu, beharbada. Baliteke norbaiti tresna egokia iruditzea esperientzia kolektibo bat sustatzeko.

I.I: Joxemiel Bidadorren pastoralak utzi zuenari gehituko zaion oroitzapen polit bat uztea nahi nuke. Jendeari antze-

ko ekitaldietan parte hartzeko txispa piztea nahi nuke, aktore eta publikoaren arteko komunitate edo ezagutza bat uztea nahi nukeen gisan. Halaber, egin genuen Bidador pastoralak, etorri ziren Ederlezi eta Joanikot, Julia Fernandezek hau emanen dugu eta, pixkanaka-pixkanaka, ederra litzateke, Iruñean, horren inguruko erreal eta imajinario kolektibo bat sortzea. Lotu dadila inauteria pastoralarekin, pastoralak dantza-talde baten ez dakit zerekin eta, elkar elikatuz, egon dadila inspirazio iturri bilakatzen den zerbait.

